



4-5 JAIALDIA

Festa erraldoia Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin

Pirritx Porrotx eta Mari Motosten emanaldi soila izan behar zuena, egun osoko festa handi bihurtu zuten Motxila 21en kontzertuak, Bonberenea txarangaren kalejira jendetsuak eta Deabru Beltzak taldearen "The Wolves" kale-antzerkiak.



6 FUTBOLA

Herriko taldeen futbol denboraldia amaitzear dago

Futboleko 2011-2012 denboraldia amaitzear da. Maila gehienetan partida bakarra falta da jokatzeko eta Ostadar Saiarre Kirol Taldeko eta Texas Lasartearra elkarteak hainbat taldek maila goera lortu edo kopako finala jokatzeko aukerak dituzte oraindik. Bestalde, herriko areto futboleko txapelketak baditu bi finalistak hurrengo astean jokatu den final handirako. Buenetxea eta Txindokiren arteko norgehiagokatik aterako da aurtengo txapeladuna eta ISU eta Izkiña berriz, finalaren atarian geratu dira ostiraleko finalerdien ostean.

Michelinek enplegu erregulazioa ezarriko die langileei

Lasarte-Oriako Udalak bere ezinegona eta nahasmena agertu ditu

Duela astebete, Michelin enpresak Estatuan dituen fabriketan enplegu erregulazioa ezarriko zuela jakitera eman zuen. Lasarte-Oriako fabriketan 600 langiletik 500 ingururi eragingo die enpresa frantsesak hartu duen neurriak.

Michelin enpresak, martxoaren 27an, Lasarte-Orian motorentzako pneumatikoak egiteko instalazio berriak inauguratu zituen. Lau urteko birmoldaketa eta 80 milioi euroko inbertsioa behar izan dute aurrera ateratzeko.

Orain, Lasarte-Oriako fabrikako langileek aldi baterako enpresa erregulazioa ezarriko dietela jakin dute.

Neurri honen bitartez, maiatza eta iraila bitartean enpresa frantsesean dauden 600 langiletik 500 inguru egun batzuetan etxean geratu dira, 36 egun gehienez. Gorpil handientzako pneumatikoen mintza prestatzen dituen tailer txikia izan da neurri honetatik kanpo geratu den bakarra.

Langileen ordezkariek adierazi dutenez, enpresak motoren pneumatikoen ekoizpena udan 17 egunetan etengo du.

Michelinek bere aldetik jakitera eman duenez, egun horietan langabezia ordainduko die eta enpresak osatu du zati bat.



Michelin enpresak Lasarte-Oriako fabrikako birmoldaketa amaitu berri du. Orain, enplegu erregulazioa ezarriko die langileei.

Negoziaketak

Egoera honen aurrean, Estatu-ko fabriketako langileen ordezkariek artean bi jarrera nagusi dira.

UGT, CCOO eta CSIF sindikatuek aipatutako sindikatuek %90eko konpentsazioa eskatu dute. Azken orduko negoziaketak tarteko, badirudi enpresak soldataren %80a ordainduko diela langileei aldi baterako enpresa erregulazioak irauten duen bitartean.

Bestalde, Lasarte-Orian nagusi diren LAB, ESK eta CGT sindikatuak ordezkariek, ezin da onartu etekinak dituen enpresa batek diru publikoa eta langileen

soldata erabiltzea, salmentetan dituen gorabeherak berdintzeko edota ordaintzeko.

Udalaren adierazpena

Lasarte-Oriako Udalak Michelingo egoera dela eta, adierazpen instituzionala egin zuen ostiralean.

Bozeramaileen batzordean Bildu, EAJ eta LOPH alderdien onospena izan zuen testua aurkeztu zuen Pablo Barrio alkateak.

Azken urteetan Lasarte-Oriako fabriketan izan den langile murrizketa aipatu zuen, "550 lanpostu zuten eta 200 zeharkako". Horregatik, herriko plantak izan duen garapenarengatik, udalaren ezinegona adierazi zuen.

Era berean, Udalaren sor-

presa eta nahasmena agertu zuen, duela astebete, plantaren instalazio berrien aurkezpenera gonbidatua izan zela eta. "Ezin dugu ekidin, Udal honen planteamenduak ez diren beste xede batetarako erabiliak izan garen sentsazioa".

Honetaz gain, "Fundacion Michelin-Desarrollo"-k sustatutako berrindustrializazio proiektua gogoratu zuen, "geldituta dago Eusko Jaurlaritzaren agindupeko erakunde den Sprilurrek erabilitako aurrekontu faltaren aitzakia dela eta".

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailek zuzendu eta proiektua desblokeatu dezan eskatu zuen, gure herrian dagoen langabezia tasa, %16, kontuan izaiak.

Zuekin berriro
Maiatzaren 16ean



Juan XXIII.a plaza
Lasarte-Oria




Adituak dio



Floren Mendizabal

Anaiak arropa denda

Herrian urte askotan bakarrak izan gara jaunartzeko jantziak saltzen. Urte guzti hauetako esperientziarekin, esan dezakegu asko aldatu direla ohiturak ospakizunari dagokionez.

Lehen aldaketa nabarmena izan da geroz eta haur gutxiagok egiten dutela jaunartzea eta noski, hau jantzi salmenta kopuruan nabaritu da. Gainera, beste fenomeno bat ere gertatu da, kaleko jantziekin jaunartzea egitearena. Azken kasu honetan, esan behar modak izan direla, boladaka nabaritu den tendentzia. Izan ere, asko garestitu dira kaleko soineko edota jantzi hauek, betiko marinel eta soineko luzeak baino askoz gehiago ordaintzen dute gurasoek egun hauengatik.

Hala ere, betiko jantziei arreta berezia eskaini izan diegu guk beti. Urtero martxoan salgai jartzen genituen neska eta mutilentzako jaunartze jantzi dotoreak. Neskentzat antzekoak izan dira beti, organzaskoak, luzeak, kankanarekin eta azken urteetan koloretako detaile bat edo beste, lazoa, loretxoak... Mutilentzat aldiz hiru modelo nabarmen ziren, marinel jantzi txuria, urdina eta almirantearena. Erosterako orduan neskek beti printzesa itxurakoa nahi izaten zuten, 90. hamarkadan "Sissi" soinekoak ugaritu ziren. Gehiegizkoak ziren eta normalean amek ez zieten hauek erosten uzten, betiko modeloetara jotzen zuten. Mutilak beti kalez jantzita joan nahi zutela esaten ziguten dendara iristean baina marinel jantzia probatu eta hau aukeratzeko zuten.

Aurten erretiratzea goaz eta ez dugu jaunartze jantziarik ekarri. Hala ere, aurreko urteko batzuk salgai jarri eta saldu ditugu. Modelo klasikoak beti saldu dira ondo. Pertsonalki pena ematen dit ospakizun hau galtzea.

Marinelak eta printzesak

Erlijioarekin geroz eta zerikusi txikiagoa duten ospakizunak dira jaunartzeak. Izenak berak dioen moduan, jauna hartzea du helburu honek. Erlijio katolikoaren parte egiten duen bigarren urrea litzateke bataiotik pasa ondoren. Garai batean ia derrigorrezkotzat jotzen zen hau egitea baina egun, gauzak asko aldatu dira elizarekin harremana duten "errito" guztietan gertatu moduan.

Lasarte-Orian inguruko herrietan bezala, maiatza da eta izan da betidanik ospakizun honetarako hilabetea. Datak mantendu diren arren, ospakizun honek dagoeneko ezkontza ponpoxo eta handi kutsua hartu du gehiago. Erlijiotasuna galdu du honek, dagoeneko Amerikako Estatu Batuetan ospatzen diren "Sweet 16" edota Hego Amerikako nesken

hamabost urteko festa dirudi askotan haurrentzako ospakizunetik guztiz urrunduz. Soineko politenarekin marinel edo printzesaz, bazkari oparoa jateko dotorean eta noski opariak dira jaunartzetan benetako protagonistak.

Garai batean panpinak edota idazlumak oparitzen ziren baina egun Disneyra bidaia, kontsolak, ordenagailuak...egia esanda, halako sariekin asko pasako lirerateko haur zein heldu, ordubeteko tramite horretatik.

Krisi garai honetan ere familia askok gastu handiak egiten dituzte haurren jaunartzea "behar bezalakoa" izan dadin. Familia elkartzeko eguna izaten jarraitzen du eta salbuespenak badauden arren, akaso beste hainbat ospakizunen antzera, zentzua galtzen hasi ote da?

Hitz eta pitz

Aldatu al dira jaunartzeak?



Ramon Elola

Aldaketa handia dago nik jaunartzea egin nuenetik. Egoera oso ezberdina da. Lehen erlijiotasuna gehiegi zen eta orain gutxiagoki. Gainera beste erlijioak azaldu dira, Jehovahen testiguak eta. Lehen egongo ziren baina ez ziren hain ezagunak. Lehen okerrena etxean izaten zen. Amak eta izebek elizara joaten nintzen edo ez galdetzen zidaten. Azkenean, ez nitzala joango erabaki nuen.



Koro Jauregi

Jaunartzeak izugarri aldatu dira. Gu zortzi senide gara eta gure garaian, jaunartzea egin eta ondoren, apaizak txokolata ematen zigun sakristian. Etxean agian bazkari bereziagoa egiten zen, baina besterik gabe. Ez da gaur egun dagoena. Alabak asteburu honetan egin du jaunartzea. Senarra langabezian dagoenez gutxi gastatu nahi izan dugu hala ere, dirutza izan da.



Feli Gonzalez

Orain 66 urte ditut eta uste dut bederatzik urterekin egin nuela jaunartzea. Soineko motza eraman nuen, arrosa oso polita. Oraingoekin alderatuta, ez du zer ikusirik. Hiru seme ditut eta ospakizunak etxean egin ditugu. Bestalde, haurrei opariek ilusioa egiten diete, baina lehen huskeri bat ematen zitzaie. Ez orain bezala. Orain ezkontzaren antzera prestatzen dira.



Milagros Etxaniz

Jaunartzea erlijio-ekitaldia da. Niretzat adin horretan hasten da sinesten eta egitea ongi iruditzen zait. Egund honen inguruan dagoen parafernalia ez dut gustuko. Bakoitzak nahi duena egiteko aske da. Nik haurrek egiten duten prozesuari ematen diot garrantzia. Sinesduna naiz eta sinesten ikastea da garrantzitsua, beste guztiak, nabarmenkeria dira.

Iruditan



1955. urteko jaunartzeak Karmengo Ama Birjinaren elizan Orian. A. Aguirre Sorondo

Maiatzan jaunartze garaia herriko elizatan

Oriako Karmengo Ama Birjinaren elizan ospatutako jaunartzea ekarri dugu honakoan. 1955. urteko maiatzaren 1eko hain zuten. Urte askotan jaunartze txikia eta jaunartze handia egitea zuten ia derrigorrezko Lasarte-Oriako haurrek. Lehena, txikia, zazpi urterekin egiten zen eta bigarrena berriz, hamabirekin. Bigarren hau egin ahal izateko, doktrina ondo ikasita eraman behar zuten gaztetxoek. Bi haurtarako jantzi bereziak prestatzen zituzten etxeetan. Moden arabera, tardeka abituarekin jantzen ziren haurrak egun honetarako.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

GIDA BAIMENA EUSKARAZ



Andoaino, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ordezkariak, autoeskoletako kideekin aurkezpenean. Eskuman Ana Mugika herritarra.

Semaforo berdea euskarari

2012an gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen artean atal teorikoa doan izango du pertsona batek eskualdeko autoeskola bakoitzean

Buruntzaldeko Udalek asteazkenean aurkeztu zuten Gidabaimena Euskaraz egitasmoa Usurbilen. 2009tik martxan den ekimena bereziki 18 urte aurten betetzen dituztenei zuzenduta dago, baina Andoain, Astigarraga, Hernani, Usurbil eta Lasarte-Oriako edonork atera dezake gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz eta zozketan parte hartu. Eskualdeko beste autoeskoletan batera herriko Izarra, Mugika eta Lasarte eskolek parte hartzen dute kanpainen, 2012 urtean zehar gidabaimena euskaraz atera dutenen artean zozketa egingo da eskola bakoitzean eta ikasleetako batek ez du atal teorikoari dagokiona ordainduko.

Aurkezpenen zenbait datu eman zituen Boris Nogales Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko buruak. 2010. urtean 47 lagunek parte hartu zuten ikastaroan, azterketa 47k egin zuten eta 34k gaititu. 2011.ean, aldi, 94 lagunek egin zuten matrikula, 88 aurkeztu ziren azterketara eta 60k gaititu zuten.

Nogales-ek jakinarazi zuen lehenengo urratsak auto-eskoletan zerbiztuak euskaraz emateko behar zituzten bitartekoak, liburu multimedia eta beste eskura jartzea izan zela, gaur egun Buruntzaldeko herri guztietan dagoela atal teoriko euskaraz egiteko aukera, baina oraindik alde handia dagoela azterketa gazteleaz egiten dutenekin alderatuta.

Horregatik eusten diote eskualdeko Udalek kanpaina honi. 18 urte aurten beteko dituzten gazte guztiei bidaltzen diete informazioa, eta auto eskola bakoitzeko ikasle batek atal teorikoa dohainik izango du. Gehienez 400 euroko sari baten zozketa egingo da gida baimena euskaraz atera dutenen artean urtearen amaieran.

Joxean Bengoetxea Gipuzkoako autoeskoletan elkarteko buruak interesgarritzat jo zuten egitasmoa eta bere iritziz garrantzitsua da erakundeen laguntza ugaritzen ari baita azterketa euskaraz egiten dutenen kopurua, "ohiturarengatik" gazteleaz egiten dutenak oraindik gehiago diren arren.

Aurrera begira zer eginak badaudela argi geratu zen aurkezpenaren amaieran, Bengoetxeak atal praktikoa ere euskaraz egiteko bidea irekitzen ari direla esatean.

UDAL MUSIKA ESKOLA

Aurrematrikula garaia

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolak gaur irekiko du 2012-13 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea.

Haurrentzako txokoak, hizkuntza musikal, armonia, abesbatza, instrumentu ugari eta helduentzako taldea ere eskaintzen ditu herriko musika eskolak.

Plazaren eskaera egiteko unean, 40 euroko zenbatekoa kontuan kargatuko da, plaza-eskaeraren kontzeptupean, eta dagokion matrikula egiteko unean deduzituko zaio kopuru hori. Plaza baten eskabidea egin eta gero matrikula gauzatzen ez duenak ez du ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango. Kultura sailak gogora arazten du, derrigorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko.

Aurrematrikula Manuel Lekuona Kultur-Etxean egingo da 09:00etatik 13:00etara eta azken eguna ekainaren 1a izango da. Matrikula garaia uztailaren 2tik 13ra izango da.



LASARTE-ORIA BIZIRIK!

Zaborren kudeaketaren inguruan

Hainbat bideo proiektio eskaini zituen Lasarte-Oria Bizirik! taldeak larunbat arratsaldean Okendo Plazan. Besteak beste, kontsumismoa eragiteko tekniken inguruko zenbait dokumental izan ziren ikusgai. Erabili eta botatzeko egiten diren produktuek sortzen duten zabor gehigarria eta hauek ematen duten uesteko zorianasunaren inguruan hausnarketa, saltoki handien prezio baxuen atzean dauden interesak, edota zaborra atez ateko sistemaren bidez jasotzearen onurak izan zituzten ardatz. Hurrengo astean, atez atekoaren inguruan sakontzeko, hitzaldiak eta Usurbilera bisita antolatatu dituzte.



Sahara eta haurren harrera

Oporrak bakean 2012" programaren aurkezpena egin zuten, Manuel Lekuona kultur-etxean. Honetan Saharar Herriaren Lagunen elkarteko kideez gain, Kooperazio arloko burua Gorka Lizarralde, harrera familieta-ko kideak, herrian bizi diren sahararrak eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako ordezkariak izan ziren.

Ekitaldian Arjeliako kanpamentuetatik zazpi ume saharar udan bi hilabete pasatzera etorriko direla azaldu zuten. Aurten gainera, Ttakun K.E.-aren laguntza izango dutela jakin arazi zuten, "haurrak txokoetan txertatuko dituzte".

Era berean, deialdia egin zieten herritarrei, harrera familia bat falta delako. Hau

izena emateko azken astea dela, gaineratu zuten eta interesa dutenek Villa Mirentxura hurbiltzera animatu zituzten.

Esperientzia eta ekitaldiak

Honetaz gain, Yaiza Ruiz gazteak familia harrera bezala bere esperientzia eta Arjeliako kanpamentuetan bizitako kontatu zuten. Ondoren, Aimelek, herrian bizi den sahararrak, haurrek bizi duten egoeraren berri eman zuten.

Azkenik, hurrengo astetan, Jalgi Kafé antzokian eta Emakumeen Zentro Zibikoan Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan ateratako argazkien erakusketa eta Kukuka-ren Antzerki eta dantza astearren barruan, "Ixiltasunaren aho-tsak" lana aurkeztuko dutela aipatu zuten.

Lasarte-Oriako danborrada irudietan

Lasarte-Oriako danborrada Leikarteak 1947tik egunera arteko argazki erakusketa irekiko du gaur, arratsaldeko 18:30ean Manuel Lekuona Kultur-etxean.

Honetan San Pedro jaietako eta herriko elkarten urrezko eta zilarrezko ezteietako 300 irudi baino gehiago ikusi ahalgo dira. Argazkiekin batera proiektio bat, danborradako jantzi, danbor eta kupelak ere ikusgai izango dira.

Eskerrak eta laguntza

Elkarteko kideek herritarren laguntzarekin bildu dituzte argazki guztiak eta horregatik, eskertuak daude.

Honetaz gain, argazkietan



agertzen diren herritar guztiei ezin izan dietela izena eman ere aipatu dute.

Horregatik, erakusketara hurbiltzen direnek norbait ezagutzen badute elkarteko kideei jakin araztea eskertuko lukete. Izan ere, argazki eta

dituzten datu guztiekin liburu bat egiteko asmoa dute.

Erakusketa Manuel Lekuona-ko erakusketa aretoan eta kafetegian astelehenetik ostiralerara 18:00etatik 21:00etara ikusgai izango da, ekainaren 8a arte.



"Moxita 21" taldeak Pirritx, Porrotx, Marimotots eta "El Drogas"ekin batera jo zuten.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots irribarretsu, herrian antolatutako zuten festa handiaz gozatzeko.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioen harira, festa itzela herrian

► **Kolorea, dantza, umorea, marrubi zein txokolatezko muxuak eta musika izan dira protagonista asteburuan**

Egun osoko jaialdi arrakastatsua antolatutako zuten Pirritx, Porrotx, Marimotots eta beraien lagunek. Haur zein guraso, primeran aritu ziren kantuan eta dantzan egun koloretsu honetan. Pallazoan bi saioez gain, goizean kalejirra, eguerdian kontzertua eta gauean kale-antzerkia izan genituen herrian.

JON ALTONA EGITZEGI

S ekulako jata antolatutako zuten asteburuan Lasarte-Orian, Goizean goizeko hasia gauera arte, etenik gabeko musika, kanta, dantza eta kolorea izan ziren nagusi herriko kaleetan. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pallazo

soil izatearik harago doazela argi eta garbi geratu zen beste behin ere lanbategiko jaialdian, eta batek dakit non eta noiz joko ote duen gailurra herriko pallazoengandako mai-tasun sukarrak.

Goizean, Tolosatik etorritako Bonberenea Txarangak girota, herrian kalejirra jen-

deatu eta alaita egin zuten. Kale arican gogotsu ibili osian, "indietatik gurea etorritako" "Moxita 21" duoin siriomedeun neska-nutulen taldeak kontzertu paregabesa eskaini zuten. Okendo Plaza osoa dantzan jarri.

Arrialdetan berriz, herriko pallazoak "Zazpikoloroa" ikuskizuna berritan eskaini zuten goraino bete zen kultur-etxean eta emanaldiak amaitzean ez zen muxu, besarkada eta argazkirik falta izan.

Eguna birbilitzeko, Deaburu Beltzak taldeak "The Wolves" kale-antzerkia eskaini zuten.



Jerdik andara bildu zen Okendo Plazan Bonberenea Txarangekin batera kalejiran parte-hartu ostean.



Jaiarene eta "Moxita 21" taldeakoko neska-mutuek alde argakia ateratu zuten giro onaren elkarrekin badaltzera joan aurretik.



Bonberenea Txarangakoko gazteek gogotsu izan zuten herriko bazterrak.



Dozen lekuera doazela, eskulako bigoan zabalitzen dute herriko pallazoak.



Kulakoko lagunek ere Pirritx, Porrotx eta Marimototsen alboan egon nahi izan zuten euren 10. urteurreina ospatzeko.



Ostiralean hainbat kultur-ekitaldi - Beste behin ere ostiralean lau kultur-ekitaldi izan genituen herrian eta antzerkia, bakarrizketa bat eta bi musika kontzertu gozatu ahal izan zuten herrietarek. Ilunze aldera, Sagardolegi Plazan antolatutako kontzertuan Otxe eta Izaskun trikitilariak izan ziren entzungailu eta buenetara tabernako terrazan berriz, "Piscocausic" herriko taldeak kontzertua eskaini zuten. Bestalide, komedia beltzean oinarritutako "La Lechuga" antzerkia ere eskaini zuten kultur-etxean. Gisu-gisu taldearekin eskutik, Gauean berriz, Jalgi kale-antzekoan Gorenin bizi den Barry Barrez bakarrizketalarik irribardarrak "Road Show" bat eskaini zuten euskaraz.



Deaburu Beltzak taldearen "The Wolves" kale-antzerkia berean ikusgarri izan zen.

FUTBOLA.-

Futbol denboraldia amaitzear da

Igoera eta kopa jokoan dituzte Ostadar eta Texas-Lasartearra kirol elkarteko taldeek

Futboleko 2011-2012 denboraldia amaitzear da. Maila gehienetan partida bakarra falta da eta Ostadar Saiarre Kirol Taldeko eta Texas Lasartearra elkarteko hainbat taldek maila igoera lortu edo kopako finala jokatzeko aukerak dituzte.

Lasarte-Oriako futbol taldeek denboraldiko azken jardunaldiak jokatuko dituzte aste honetan eta igoera edo kopa jokoan dute horietako batzuk.

Ostadarreko Infantilen Ohorezko mailako taldea kopa jokatzen ari da.

Asteburu honetan bere taldeko lehenengo sailkatuaren aurka jokatu du, Lengokoak-en aurka.

Partida baino lehen herriko taldea bigarren postuan zegoen. Lengokoak-ek bi puntuko errenta ateratzen zion eta irabaziz gero, lehenengo jarri eta hurrengo astean txukun arituz gero kopako finala jokatzeko sailkatzeko aukera zuen.

Ez zen halakorik gertatu ordea. Lengokoak-ek jipoi handi samarra eman baitzion Michelinen (0-4) eta ondorioz finaletik at geratu baita.

Baina ez zen hau kopako finaleran egon zitekeen talde

bakarra. Texas Lasartearra-eko erregional taldeak iaz lortutako trofeoak mantendu nahi baitu.

Koldo Ageitosek zuzentzen duen taldeak berriro ere kopako azken faserako sailkatzeko aukerak dauzka, baina zail jarri zaio larunbatean Añorgaren aurka bina berdindu ostean.

Bere taldeko bigarren sailkatu bezala ageri da partida baten faltan eta "Mariño B"-k azken jardunaldian egiten duenaren arabera lortuko du txartela, edo ez. Sailkatuz gero, beste taldeko lehengoaren aurka jokatu beharko luke final handia maiatzaren 27an.

Igoera postuak

Honetaz gain, Kadeteen Ohorezko mailako taldea Euskal Ligara igo daiteke zuzenean, partida baten faltan sailkapeneko lehen postuan da eta.

Ostadar Erregional taldeak, berriz, aste honetan eman dio amaiera denboraldiari.

Nahiz eta Mikel Martija eta



Ostadarreko infantilek gertu eduki dute kopako finalerako sailkapena, baina Lengokoak erraz nagusitu zitzaion 0-4ko emaitzarekin.

Aiser Gorostegik zuzentzen duten taldeak igoera zuzena lortzeko ahalegin guztiak egin, ezin izan du Touring taldea atzeman.

Honela, Erregional Ohorezko mailara igotzeko aukera bigarren postua eskuratzea da. Partidak maiatzaren 27an eta ekainaren 3an jokatuko ditu.

Era berean, Emakumezkoen taldeari dagokionez, Arizmendi taldearen aurka ligako

9. postua jokatzen ari da.

Areto-Futbola

Bestalde, herriko areto futbol txapelketak baditu bi finalistak hurrengo astean jokatuko den final handirako. Buenetxea eta Txindokiren arteko norgehiagokatik aterako da aurtengo txapeladuna.

Finalerdiak

Ostiralean, finalerdietako itzulo

lerako partiduak jokatu zituzten kiroldegian finalerako bi txartelen jabeak erabakitzeko.

Txindoki nagusitasunez gailendu zitzaion Izkiña tabernari, 5-0eko emaitzarekin. Buenetxea eta ISUP berriz, joaneko eta itzulerako partiduetako emaitzak batuta bana egin eta penaltietan erabaki behar izan zuten norgehiagoka. Zortea Buenetxearen alde agertu eta bera pasa zen finalera.

MENDIA.-

Proiektzioa eta Jaizkibeleko zeharkaldia

Ostada SKT-k Mendi sailak bi ekintza antolatu ditu aste honetako, batetik "Islandia eta Groenlandia" proiektzioa eta bestetik Jaizkibel mendiko zeharkaldia.

Proiektzioa ostegunean, maiatzaren 17an, 19:30etatik aurrera izango da Manuel Lekuona kultur etxean.

Honetan Asier Aranzabal eta Mila Gallastegik bi irla zoragarri hauetan bizitakoa azalduko dute.

Zeharkaldia

Bestalde, maiatzaren 20ean, igandea Jaizkibel mendia kostatik zeharkatuko dute.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, 9 orduko ibilbide luzea, 20 kilometro, izango da. Gainera, bideak zailtasun handirik ez duela azpimarratu dute.

Pasai San Pedron izango da hitzordua, Donibanera pasatzeko txalupa hartzen



Asier Aranzabal eta Mila Gallastegik Islandia eta Groenlandiako proiektzioa eskainiko dute.

den lekuan, 7:45etan. Txalupaz pasako dira eta Donibane bi marka txuriz markatutako bidea jarraituko dute.

Hondarribin autobusa hartuko dute herrira bueltatzeko.

Antolatzaileek oharta arazi nahi dute, bidean ez

dagoela urik, beraz, bakoitzak ura eta janaria eraman behar duela. Honetaz gain, txalupa eta autobusa hartzeko diru ere eraman behar da.

Zeharkaldian izena emateko deitu honako zenbakira, 639 056 967 Sonia.

ATLETISMOA.-

Endika Gartzia hirugarren Erlaitzeko igoeran

Erlaitz-Aiako Harriak mendiko maratoni erdiaren bigarren edizioa izan zen maiatzaren 6an. Honetan 283 partehartzaile izan ziren 22 kilometro dituen lasterketan. Horien artean lau herritar izan ziren eta Endika Gartzia lasarteoritarra hirugarren iritsi zen helmugara.

Herritarrek 1:48:14 denbora egin zuen. Didier Zago irabazleak hamar minutuko errenta atera zion eta Hassan Ait Chau Ait Chau bigarren sailkatuak lau minutuko.

Proban izan ziren beste herritarrek honako markak egin zituzten: Iraitz Arruabarrena 2 ordu eta 1 min., Iñaki Letamendi 2 ordu 38 min. eta Pello Fadrique 2 ordu eta 49 min.



Endika Gartziak Erlaitz-Aiako Harriak proban hirugarren postua eskuratu zuen.

Agenda

Astelehena 14-Larunbata 26, Manuel Lekuona kultur etxea



Antzerki eta dantzaz blai

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak X. Antzerki eta Dantza astea ospatu du datozen bi asteetan. Zubietako lagunek, Landaberri eta Sasoeta ikastetxeako ikasleek, gazteek eta helduen taldeek urtean zehar landutako antzezlanak eta dantzak erakutsiko dituzte Manuel Lekuona kultur-etxeako aretoan egunero. Milaka abentura bizi ahalko dira emanaldi ezberdinetan.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Asteazkena 16, 19:00etan

Landaberri institutuko DBH2ko ikasleek "Miss Sunshine txikia" eta "Kale gorrian" lanak antzeztuko dituzte. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Osteguna 17, 19:00etan

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeako LH6 mailako gaztetxoek "Printzesak aspergura dauka" eta "Danbor magikoa" lanak aurkeztuko dituzte. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Ostirala 18, 19:00etan

Landaberri ikastolako LH3ko gaztetxoek "Mimoak beti berriketan, nola?" lana antzeztuko dute, Zubietako ikastolako ikasleek, berriz, "Basoan galdua" lana. Euskaraz.

Ostirala 18, 22:30ean

Gazteen taldeak "Shakespeare osoa gutxi gorabehera" lana aurkeztuko du. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Larunbata 19, 22:30ean

Helduen taldeak Saharako egoera azaltzen duen "Ixiltasunaren ahotsak" lana aurkeztuko du. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Igandea 20, 12:00etan

Euskal dantza eta sorkuntzako emanaldia eskainiko dute dantza talde ezberdinek. Euskaraz.

Igandea 20, 19:00etan

Dantza garaikideko emanaldia eskainiko dute, Landaberri ikastolako eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako taldeek. Euskaraz.

Lasarte-Oria

Diaporama

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Ostirala 17, 19:30ean

Ostadar SKT-ko mendi sailak "Islandia eta Groenlandia. Belarra, laba eta izotza oinpean" proiektzioa eskainiko du.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 18, 22:30ean

"Ventos de Saudade" taldeak fado emanaldia eskainiko du. Doan.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 18, 23:45ean

Metal gaua "Vita Imana" eta "Korum-

bá" taldeen eskutik. Sarrerak aurretik 10 euro; egunean bertan 12 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA Maiatzean zehar

Mundu Bat GKE-ren "Amerika erdialdeko emakumeak: halakoak gara, halaxe borrokatzen dugu" argazkien erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Maiatzaren 9tik 16ra

Lasarte-Oria elkarteko marrazki eta margo ikastaroko ikasleen erakusketa ikusgai izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Maiatzaren 14tik ekainaren 8ra

Lasarte-Oriako danborradako antola-

zaileek 1947tik gaur egunera arteko Danborradako argazki erakusketa jarriko dute.

X. Antzerki eta Dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Astelehena 14, 19:00etan

Landaberri ikastolako LH5eko ikasleek "Goazen Udalekuta" eta "Goazen ikastola" lanak eskainiko dituzte. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Asteartea 15, 19:00etan

Landaberri ikastolako LH1 mailako ikasleek "Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lagunak" lana eskainiko dute eta LH2koek "Munduko bidaia" antzezlana. Euskaraz.

Herritarren txokoa

Denboraldi amaierako afarirako tiketak

Ostadar SKT-k maiatzaren 26an 2011-2012 denboraldi amaierako afaria antolatuko du.

Bertan egon nahi dutenek tiketak eskuratu behar dute kirol taldearen bulegoan arratsaldetan, 18:30etik 20:00etara. Txartela eskuratzeko azken eguna maiatzaren 18a da.

San Pedro pilota txapelketak

Intza elkarteak gaztetxoaren eta betaranoen esku pilota txapelketak antolatuko ditu. Partidak larunbata eta igandean jokatu dira.

Interesa dutenek asteartean Michelingo pilotalekura edo ostegunetan Loidi-Barrenengo pilotalekura hurbildu behar dira, 18:30etik 20:00etara eta Peio Sarasolarengatik galdetu behar dute.

Inskripzioa egiteko azken eguna maiatzaren 15a da. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, ez da izena ematerik hartuko epetik kanpo.

Galdutako gauzak

Lehenengo larunbatean, maiatzaren

5ean, Loidi-Barrenengo pilotalekuan antolatuko zen Amaraun jaialdian, Batman-en kapa grisa eta beltza galdu zen.

Norbaitek aurkituz gero, dei dezala mesedez 636694375 telefono zenbakira.

Lourdesera irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Lourdesera txangoa antolatuko du maiatzaren 17an osteguna.

Txangoan Betharram-eko kobazuloa ere bisitatuko dute.

Txangoaren prezioa 34 euro da elkarteko bazkideentzako eta bazkide ez direnek 38 euro ordaindu behar dituzte.

Txakurra galdu da

Thor hiru urteko Spaniel Bretona galdu zen apirilaren 21ean Cocheraseko bidegorriaren inguruan. Kolore gorri-ka du txuri gutxirekin. Mikrotxipia dauka.

Norbaitek aurkitu badu honako telefonoetara deitzea eskertuko genuke 687 571 037 eta 670 950 785. Sarituko da.

Haurren txokoa

Aurkitu hemezortzi hiri olinpiko

E	T	F	K	L	B	U	K	E	P	L	L	E	J	S	Z	M
C	B	A	G	K	N	O	N	V	N	G	P	A	R	I	S	
W	N	N	N	K	D	R	N	J	M	Y	A	M	B	J	C	F
R	G	R	L	O	U	G	P	O	J	W	B	A	G	Y	A	F
R	M	K	U	O	L	M	Y	I	H	O	M	S	K	J	N	W
V	P	V	B	C	N	E	N	K	J	I	Y	H	F	A	R	V
E	E	L	S	O	F	D	Z	O	G	D	Y	A	O	T	N	O
W	E	U	R	R	D	Y	R	T	N	Y	D	W	E	L	D	Y
M	E	Z	I	H	Y	O	N	E	R	D	U	G	U	A	N	A
L	C	X	S	G	V	I	Y	E	S	A	U	P	I	N	Z	M
G	X	F	R	K	L	O	P	X	E	I	B	C	C	T	Z	T
W	K	Z	H	R	K	E	A	M	S	T	E	R	D	A	M	B
V	U	C	E	I	H	C	I	N	U	M	O	S	K	U	L	D
A	W	B	X	L	I	T	K	N	I	S	L	E	H	D	X	
P	B	E	N	G	R	Z	H	A	T	E	N	A	S	E	P	F
A	M	Y	K	B	I	G	B	E	I	J	I	N	G	R	Y	N
N	R	G	V	M	W	M	O	N	T	R	E	A	L	R	V	N
G	K	E	A	W	A	K	L	H	A	D	F	K	E	O	X	J
X	B	N	P	R	N	O	N	J	K	N	J	R	V	M	L	Z
S	T	O	C	K	H	O	L	M	L	U	E	S	Y	A	K	B
P	B	D	W	S	Z	W	M	F	K	O	V	W	A	N	Z	E
I	N	T	B	L	M	H	O	A	J	B	B	C	H	H	N	B

koko11koko.com

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Lurdes Moraza Psikologa Klinikoa

Lasarte-Oriako Zentro mediko berriak ateak zabalduko ditu

Gidabaimenak ateratzeko beharrezkoak diren azterketa psikoteknikoak herrian

Geltoki kalearen 2. zenbakian datorren astetik aurrera zabalik izango da herrian mota honetako lehenengo zentro medikoa. Honetan gidabaimen guztietarako eskatzen diren azterketa psikoteknikoak egin ahal izango dira. Horretaz gain, arma baimenentarako eta txakur arriskutsu bezala sailkatutako txakurrak etxean edukitzeko lizentziak eskuratzeko beharrezkoak direnak ere egingo dira.

Lurdes Moraza Psikologa Klinikoa izango da medikuarekin batera osasun-azterketa hauek egiten arituko den profesionala. Pozik daude duten eronkarekin eta espero dute lasarteoriatarren ohiturak aldatu eta azterketa psikoteknikoak egiteko Donostiara joan beharrean hemen, herrian bertan gelditzea aurrerantzean.

Zer da zehazki zentroan egin ahal izango dena?

Gidari guztiak dakiten moduan, edozein gidabaimena ateratzeko beharrezkoa da azterketa psikoteknikoa gainditzea eta hau da hain juxtu hemen egingo ahal izango dena. Kotxe, moto, kamioi edota garabiak gidatzeko gainditu beharreko osasun-azterketa. Esan behar da azterketa hauen oinarria audiometria eta proba oftalmologikoak direla.

Baina azterketa hau ere derri-gorrezkoa da beste lizentzia batzuk eskuratzeko ezta?

Bai, arma baimenak eskuratzeko beharrezkoa da azterketa hau gainditzea eta agian jendeak gutxien eza gutuzten duena txakur arriskutsuak etxean edukitzeko lizentzia eskuratzeko ere. Azken honek arriskutsuak diren arrazako txakurrak etxean izatea baimentzen du.

Zergatik Lasarte-Orian horrelako zentro bat?

Herri handia da eta konturatu ginen bertakoek batez ere Donostiara joaten zirela osasun-azterketa hauek egitera. Gure ustez abantaila handia da etxetik gertu tramite hau egin ahal izatea. Ez duzu goiz edo arratsalde oso bat galdu behar hau eskuratu ahal izateko. Gainera erdigunean gaude, Udaletxe berriaren parean Okendo plazan eta nik uste dut oso eroso dela gure kokapena lasarteoriatarrentzat.

Dena den, aipatu behar da halako zentro bat zabalteko asko direla jaso beharreko baimenak. Ez da hain erraza. Esaterako Trafikok du honetan eskumena eta dena ondo dagoela ziurtatzen du zabalteko baimena eman aurretik. Berdina egiten dute Osasun saileko ikuskariek.

Horretaz gain, bertan lan egingo duten profesionalen titulazioak ere begiratzen dira dena araudiak agindu moduan betetzen dela baieztatzeke.

Horrelako beste zentrorik bala duzue?

Ez, ez gara frankizia bat edo horrelako ezer. Hemen lanean arituko garen medikuaren kasuan baita nirean ere, urteetako lan esperientzia dugu halako zentroetan baina



ez dugu bestelako harremanik inguruan edota Donostian daudenekin.

Esan behar da, hau zabalteko azken bultzada, nolabait esateko, eman zigutenak Iruñean halako bi dituzten lagun batzuk izan zirela eta haien esperientzian "babestuta" dago zentro hau izan ere, oso gertutik jarraitu dute hau zabalteko egin dugun prozesu guztia.

Lokala aukeratu, lan egiteko beharrezkoak diren makinak erosteko nora jo, zeintzuk diren merkatuan dauden hoberenak... halako gomen-dioak jaso ditugu haien alde-tik.

Zein ordutegitan egongo da zabalik?

Hasiera batean arratsaldez irekiko dugu, 16:30etatik 20:00etara bitarteko ordutegi finkoa izango dugu, astelehene-tik ostiralera. Hala ere, asmoa da egun osoko ordutegi eskaini ahal izatea.

Aurrez ordua hartu beharko da azterketa psikoteknikoa egiteko?

Bezeroak nahi bezala, erosen gertatzen zaiona. Aurrez ordua hartu ahal izango da baina berez, momentuan hartuko dugu jendea. Telefono zenbakia **943 374 224** da eta ordua hartu edota informazio

gehiago eskatzeko dei daiteke dagoeneko.

Zer esango zenieke herritarrei zuengana gerturatzeko?

Animatuko nituzke etxetik gertu izango duten zerbitzua erabiltzera. Erdigunean gaude eta behin azterketa eginda, gu arduratuko gara egin beharreko tramiteak kudeatzeaz, argazkiak ere bertan egingo ditugu. Bezeroak ez du trafikora joan beharko hau eramatea hemendik egingo dugu dena. Gainera esan, tasei dagokionez, trafikok finkatzen dituela. Beraz, animatu datoren astetik aurrera guregana etortzea!

gidariak
armak

Osasun-azterketak

Reconocimientos Médicos

conductores armas

Geltoki 2 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 374224